



Esp. kodea: 2019PHLF0002
Titularra: PERTSONAL SAILA

Gaia: Pertsonal burua lanpostua jabetzan betetzeko lehiaketa
Hasiera data: 2019/03/26

OINARRIAK: GIZA BALIABIDEETAKO ARDURADUNA

TGB 2019/05/23

**OINARRI-ARAUAK, HAUTAKETA
PROBEN DEIALDIARENAK,
ARRASATEKO UDALEKO GIZA
BALIABIDEETAKO ARDURADUN
PLANTILLAKO PLAZA HORNITZEKO,
ZEINA 2019KO ENPLEGU PUBLIKOAREN
ESKAINTZARI DAGOKIO**

**BASES DE LA CONVOCATORIA DE
PRUEBAS SELECTIVAS PARA LA PROVISIÓN
DE LA PLAZA DE “JEFE/A DE PERSONAL”
DEL AYUNTAMIENTO DE ARRASATE
CORRESPONDIENTE A LA OFERTA DE
EMPLEO PÚBLICO DEL AÑO 2019**

LEHENA.- DEIALDIAREN HELBURUA

Oinarri hauen xedea lehiaketa-oposaketa askearen bidez, Arrasateko Udalaren langile plantillan hutsik dagoen Giza Baliabideetako Arduradun plaza betetzeko deialdia arautzea da, hain zuzen, karrerako funtzionarioentzat gorderik dagoena.

PRIMERA. - OBJETO DE LA CONVOCATORIA

Es objeto de estas bases regular la convocatoria para la provisión mediante concurso-oposición libre de una plaza de “Jefe/a de personal”, reservada a funcionario/a de carrera, vacante en la plantilla de personal del Ayuntamiento de Arrasate.

**BIGARRENA.- LANPOSTUAREN
EZAUGARRIAK ETA EGINEKOAK**

**SEGUNDA.- CARACTERÍSTICAS Y
FUNCIONES DEL PUESTO**

LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK

CARACTERÍSTICAS DEL PUESTO

Izena: Pertsonal burua.

Denominación: Jefe de Personal.

LZko kodea: 9

Código de la RPT: 9

Sailkapen taldea: A1

Grupo de clasificación: A1

Jatorriko eskala: Administrazio orokorra / Administrazio berezia.

Escala de procedencia: Administración General / Administración Especial.

Titulazioa: Lizentziatura / Gradua zuzenbidean.

Titulación: Licenciatura / Grado en Derecho.

Dedikazioa: Esklusiboa eta jardunaren luzapena

Dedicación: Exclusiva y prolongación de jornada

Udalhitz-Arrasate maila: 25

Nivel Udalhitz-Arrasate: 25

| | | | | |
|---|---|--------------|--------------------------|--|
| Kodea | CL19/06819 | Udala | ARRASATE | |
| Data | 2019/mai./27 | CUDO | 000.0055.AAAA942P.6.9UNJ | |
| URL | https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAA942P6.9UNJ | | | |
| Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu | | | | |



Esp. kodea: 2019PHLF0002
Titularra: PERTSONAL SAILA

Gaia: Pertsonal burua lanpostua jabetzan betetzeko lehiaketa
Hasiera data: 2019/03/26

Lanpostu mailako osagarria: 27

Nivel de Complemento de Destino: 27

Dedikazio osagarria: % 20

Complemento de Dedicación: 20%

Eskatutako Hizkuntza eskakizuna: 4, derrigorrezkoa, eta nahitaezkotasun eguna amaituta.

Perfil lingüístico exigido: 4, preceptivo, con fecha de preceptividad vencida.

LANPOSTUAREN EGINEKOAK

FUNCIONES DEL PUESTO

Orokorrak:

Con carácter general:

- Giza baliabideen unitatea zuzendu eta kontrolatzea, jarduerak koordinatuz, eta Udalaren antolaketa, pertsonal, informatika eta barne araudiko baliabide propioak izendatuz.

- Dirigir y controlar la Unidad de Recursos Humanos, coordinando las actividades y asignando los recursos propios de organización, personal, informática y régimen interior del Ayuntamiento.

Zeregin esanguratsuenak dira:

Como tareas más significativas:

- Pertsonal burutzaren ordezkartzaren berezko agintaritza funtzionala burutzea giza baliabideen kudeaketari buruz, Korporazioaren unitate guztietan.
- Laguntzea eta aholkuak ematea gobernu organoei gai juridiko eta teknikoetan: langileen antolaketari eta kudeaketari buruz.
- Betetzea Pertsonal batzordeko eta beste udal organo batzuen idazkari edo/eta aholkulari teknikoaren egitekoak: Hautaketa prozesuetako epaimahaiak, segurtasun eta osasuneko batzordea, lanpostuen balorazio batzordea, kontratazio mahaiak...
- Txostenak, diktamenak eta erabaki proposamenak egitea gobernu organoentzat.
- Laguntzea Udalaren defentsan erreklamazio judizialean (auziak eta magistratura)
- Udalbatza ordezkatzeari buruzko gizarte-laneko erakundeen aurrean.

- Ejercer la autoridad funcional propia de la delegación de Jefatura de Personal en materia de gestión de los RR HH en la totalidad de las Unidades de la Corporación.
- Asistir y asesorar a los órganos de gobierno en materias jurídicas y técnicas propias de Organización y Gestión del Personal.
- Desempeñar funciones de Secretario/a y/o Asesor/a Técnico de la Comisión Informativa de Personal y de otros órganos municipales: Tribunales de procesos selectivos; Comité de Seguridad y Salud; Comité de Valoración de Puestos de Trabajo; Mesas de Contratación...
- Elaborar informes, dictámenes y propuestas de resolución para los órganos de gobierno.
- Colaborar en la defensa del Ayuntamiento en reclamaciones judiciales (Contencioso y Magistratura).
- Representar a la Corporación ante los organismos sociolaborales.

| | | | | |
|--|---|--------------|--------------------------|--|
| Kodea | CL19/06819 | Udala | ARRASATE | |
| Data | 2019/mai./27 | CUDO | 000.0055.AAAA942P.6.9UNJ | |
| URL | https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA942P6.9UNJ | | | |
| Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu | | | | |



Esp. kodea: 2019PHLF0002
Titularra: PERTSONAL SAILA

Gaia: Pertsonal burua lanpostua jabetzan betetzeko lehiaketa
Hasiera data: 2019/03/26

- Koordinatzea sailaren berezko jarduerak eta eskuhartzeak administrazio unitateetako eta erakunde autonomoetako kudeatzaileekin eta arduradunekin.
 - Laguntzea eta informatzea udal langileei eta haien legezko ordezkariari eta ordezkari sindikalei, eta parte hartzea negoziazio bileretan langileen lan baldintzei buruz.
 - Egiatzatu eta gainbegiratzea Korporazioaren langileen administrazioa. Nominak, lan kontratuak, izendapenak, likidazioak Gizarte Segurantzaren eta Elkarkidetzaren, erantzukizun zibileko aseguruak istripuak eta bizitza, eta abar.
 - Egiatzatzea I kapituluko aurrekontua egin izana (ordainketak), eta jarraipena egitea, bai eta dagozkion aldaketak proposatzea ere.
 - Informatzea baimen eskaerak, lizentziak, eszedentziak, bateragarritasunak, dedikazio bereziak, erretiroak eta abar.
 - Izapidetzea diziplina espedienteak, langileek hutsegiteak izanez gero.
 - Enplegu eskaintza publikoa egitea, eta prozesuak kudeatzea langileak aukeratzeko, bai eta lanpostuak hornitzea ere.
 - Pertsonalaren prestakuntza sustatzea eta jarduerak eta tramiteak gainbegiratu, kolaboratu eta antolatzea arlo horretan.
 - Egiatzatu eta gainbegiratzea laneko arriskuen prebentzio zerbitzuaren eta enpresako osasun zerbitzuaren funtzionamendua.
 - Kudeatu eta egunean edukitzea antolamendu tresnak (lanpostuen zerrenda, organigramak, plantilak, lan poltsak eta abar) eta langileen erregistroa.
- Coordinar actividades e intervenciones propias del Área con los gestores y responsables de línea de las distintas unidades administrativas y organismos autónomos.
 - Atender e informar a los empleados municipales y a sus representantes legales y sindicales y participar en reuniones de negociación sobre condiciones de trabajo del personal.
 - Verificar y supervisar la Administración de personal de la Corporación: Nóminas; contratos de trabajo; nombramientos, liquidaciones a la Seguridad Social y Elkarkidetzaren, seguros de responsabilidad civil, accidentes y vida, etc.
 - Verificar la confección del Presupuesto del Capítulo I (Retribuciones), y hacer su seguimiento, proponiendo las modificaciones oportunas.
 - Informar las solicitudes de permisos, licencias, excedencias, compatibilidades, dedicaciones especiales, jubilaciones, etc.
 - Instruir expedientes disciplinarios con ocasión de faltas cometidas por el personal.
 - Elaborar la oferta pública de empleo y gestionar los procesos de selección del personal, así como de provisión de puestos.
 - Impulsar la formación del personal y supervisar y colaborar en las actividades y trámites en dicha materia
 - Verificar y supervisar el funcionamiento del Servicio de Prevención de Riesgos Laborales y Servicio Médico de Empresa
 - Gestionar y mantener al día los Instrumentos de Ordenación (Relación de Puestos de Trabajo, Organigramas, Plantillas, Bolsas de Trabajo, etc.) y el Registro de Personal


| | | | | |
|--|---|--------------|--------------------------|--|
| Kodea | CL19/06819 | Udala | ARRASATE | |
| Data | 2019/mai./27 | CUDO | 000.0055.AAAA942P.6.9UNJ | |
| URL | https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAA942P6.9UNJ | | | |
| Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu | | | | |



Esp. kodea: 2019PHLF0002
Titularra: PERTSONAL SAILA

Gaia: Pertsonal burua lanpostua jabetzan betetzeko lehiaketa
Hasiera data: 2019/03/26

- Kudeatzea lanbide-jokaera eta errendimendua neurtzen eta balioesten dituen zeregina ebaluatzeke sistemaren diseinua.
 - Informatu eta kudeatzea udal zerbitzuetako lan egutegiak eta oporraldietako urteko plana.
 - Kudeatzea zer gorabehera izan diren udal zerbitzuetan, titularra ez dagoelako, zereginak pilatu direlako eta abar.
 - Proposamenak egitea udal zerbitzuen funtzionamendua eta prestazioa hobetzeko.
 - Proiektuak bultzatu eta garatzea kudeaketa modernizatzeko: Kalitate sistemak, espedienteak informatizatzea, leihatila bakarra, kudeaketa adierazleak, zerbitzuen katalogoak eta abar.
 - Kudeatzea informatika unitatearen espediente administratiboak.
 - Kolaboratzea udalaren web orria kudeatzen: Edukiak definitu eta antolatzea, informazioa egiaztatzea, eta eguneraketa kontrolatzea.
 - Gainbegiratu eta bultzatzea aplikatu daitezen udal zerbitzu guztietan identitate korporatiboaren eskuliburuko arauak.
 - Kudeatzea barne araudiko edo zerbitzu orokorretako eremuaren hainbat gai.
 - Kolaboratzea administrazio kontratazioko agiriak eta espedienteak idazten, pertsonal eta barne araudiko ondasunei eta zerbitzuei buruz.
 - Udalbatzako idazkaria ordezte, hala behar izanez gero, hura ez dagoenean.
- Impulsar el establecimiento de un sistema de evaluación del desempeño que mida y valore la conducta profesional y el rendimiento
 - Informar y gestionar los calendarios laborales de los distintos servicios municipales y el plan anual de vacaciones
 - Gestionar las incidencias surgidas en los diversos servicios municipales por inasistencia del titular, acumulación de tareas, etc.
 - Formular propuestas de mejora del funcionamiento y prestación de los servicios municipales.
 - Impulsar y desarrollar proyectos de modernización de la gestión: sistemas de calidad, informatización de expedientes, ventanilla única, indicadores de gestión, catálogos de servicios, etc.
 - Gestionar los expedientes administrativos de la unidad de informática.
 - Colaborar en la gestión del sitio web municipal: definición y organización de contenidos, verificación de la información y control de la actualización.
 - Supervisar e impulsar la aplicación en todos los servicios municipales de las normas previstas en el Manual de Identidad Corporativa.
 - Gestionar asuntos diversos del ámbito de Régimen Interior o Servicios Generales.
 - Colaborar en la redacción de los pliegos y expedientes de contratación administrativa de bienes y servicios de Personal y Régimen Interior.
 - Sustituir, en caso necesario, al/a la Secretario/a de la Corporación en sus ausencias.

| | | | | |
|--|---|--------------|--------------------------|---|
| Kodea | CL19/06819 | Udala | ARRASATE |  |
| Data | 2019/mai./27 | CUDO | 000.0055.AAAA942P.6.9UNJ | |
| URL | https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAA942P6.9UNJ | | | |
| Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeke hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu | | | | |



Esp. kodea: 2019PHLF0002
Titularra: PERTSONAL SAILA

Gaia: Pertsonal burua lanpostua jabetzan betetzeko lehiaketa
Hasiera data: 2019/03/26

- Beste edozein zeregin egitea, bere kategoriakoa, hala eskatzen badiote, betiere aurrez ikasi badu hori egiten.

- Efectuar cualquier otra tarea propia de su categoría que le sea encomendada y para la cual haya sido previamente instruido.

HIRUGARRENA.- DEIALDIAN PARTE-HARTZEKO BALDINTZAK

TERCERA.- CONDICIONES PARA PARTICIPAR EN LA CONVOCATORIA

Deialdian parte hartu nahi duten pertsonak, onartuak izan daitezten, baldintza guzti hauek bete beharko dituzte:

Las personas que deseen tomar parte en la convocatoria, para ser admitidas, deberán cumplir todos y cada uno de los siguientes requisitos:

- a) Espainiako naziotasuna edukitzea. Horrez gain, esku hartu ahal izango dute Europar Batasuneko estaturen bateko naziotasuna edukiz gero, edo Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsi tako nazioarteko itunen arabera langileen joan-etorri askea aplikatzen zaion estatu batekoa izanez gero. Halaber, Europar Batasuneko estatuetako naziotasuna dutenen ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta zuzenbidearen arabera banatuta ez badaude, bai eta haien ondorengoek eta ezkontideen ondorengoek ere, baldin eta zuzenbidearen arabera banatuta ez badaude eta ondorengoak hogeita bat urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, gurasoen kontura bizi badira.

- a) Tener la nacionalidad española, sin perjuicio de tener la nacionalidad de alguno de los Estados miembros de la Unión Europea, o ser nacional de algún Estado al que, en virtud de la aplicación de los Tratados Internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por España, le sea de aplicación la libre circulación de trabajadores. También podrán participar el cónyuge de los y las nacionales de los Estados miembros de la Unión Europea, siempre que no estén separados/as de derecho y sus descendientes y los de su cónyuge siempre que no estén separados/as de derecho, sean menores de veintidós años o mayores de dicha edad dependientes.

- b) 16 urte beteak edukitze a eta nahitaezko erretiroa hartze ko adin maximoa pasa gabea.

- b) Tener cumplidos 16 años de edad y no exceder de la edad máxima de jubilación forzosa.

- c) Zuzenbide gradua edo lizentziatura izatea edo titulu hori lortzeko eskubideak ordainduta edukitzea.

- c) Estar en posesión o haber abonado los derechos para obtener el título universitario de Grado o la licenciatura en Derecho.

Atzerriko titulazioaren bat izanez gero, titulu horren homologazioa egiaztatzen duen ziurtagiria eduki beharko da.

En el caso de las titulaciones extranjeras, se deberá estar en posesión de la credencial que acredite su homologación.

- d) Euskarako 4. hizkuntza-eskakizunaren jabe izatea, zortzi garren oinarrian jasotakoarekin bat.

- d) Estar en posesión del perfil lingüístico 4 de euskera, de conformidad con lo señalado en la base octava.

- e) Lanpostuaren berezko eginkizunak betetzeko

- e) Poseer la capacidad funcional para el desempeño

| | | | | |
|---|---|--------------|--------------------------|--|
| Kodea | CL19/06819 | Udala | ARRASATE | |
| Data | 2019/mai./27 | CUDO | 000.0055.AAAA942P.6.9UNJ | |
| URL | https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAA942P6.9UNJ | | | |
| Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu | | | | |



Esp. kodea: 2019PHLF0002
Titularra: PERTSONAL SAILA

Gaia: Pertsonal burua lanpostua jabetzan betetzeko lehiaketa
Hasiera data: 2019/03/26

funtzio gaitasuna edukitzea. Baldintza hori bere garaian egingo den osasun azterketa zehatzaren bidez egiaztatu beharko da.

normal de las funciones propias del puesto. Este extremo habrá de acreditarse en su momento mediante el oportuno reconocimiento médico.

f) Diziplina-espedita batez edozein herri administrazio edo autonomia erkidegoko organo konstituzional edo estatutarioen zerbitzu tik bereizita ez egotea, ebazpen judizialaren arabera enplegu edo kargu publikorako desgaitasuna erabatekoa edo berezia ez izatea, ezta funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartze ko, edo lan-legepekoen kasuan, bereiziak edo desgaituak izan diren lanpostuko antze rako eginkizunak betetzeko. Beste estatu bateko nazionala izanez gero, desgaitua edo egoera baliokidean ez egotea, ezta diziplina zehapenik edo baliokiderik ere, dagokion estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragotziko duenik, hain zuzen.

f) No haber sido separada mediante expediente disciplinario del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas o de los órganos constitucionales o estatutarios de las Comunidades Autónomas, ni hallarse en inhabilitación absoluta o especial para empleos o cargos públicos por resolución judicial, para el acceso al cuerpo o escala de funcionario/a, o para ejercer funciones similares a las que desempeñaban en el caso del personal laboral, en el que hubiese sido separada o inhabilitada. En el caso de ser nacional de otro Estado, no hallarse inhabilitada o en situación equivalente ni haber sido sometida a sanción disciplinaria o equivalente que impida, en su Estado, en los mismos términos el acceso al empleo público.

g) Indarrean dagoen araudiaren arabera legezko ezgaitasun edo bateraezintasun kasuren baten ez egotea, betiere legeak ematen duen aukeratzeko eskubidea alde batera utzita.

g) No estar incurso en causa legal de incapacidad o incompatibilidad según la normativa vigente, dejando a salvo el derecho de opción que ésta le otorgue.

Oinarri honetan adierazitako baldintza guztiak, d atalekoa izan ezik, –hortan xedatutakoa bete beharko da eta–, eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dira eta beroriek bere horretan mantendu udal honetako karrerako funtzionario gisa kargu hartzeko egunean.

Todos los requisitos enumerados en esta base, salvo el señalado en el apartado d, –que se estará a lo dispuesto en el mismo–, deberán poseerse a la fecha de finalización del plazo de presentación de instancias y mantenerlos hasta el momento de la toma de posesión como funcionario/a de carrera de este Ayuntamiento.

LAUGARRENA.- ESKAERAK AURKEZTEA

CUARTA.- PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES

Hautaketa prozesuan parte hartu nahi dutenek oinarri hauen eranskin modura dagoen eskabide bidez agerrarazi behar dute hori (eredu ofizial eta normalizatuari egokiturik). Baita ere udal web orrian (www.arrasate.eus) edota Biztanleen Arreta Zerbitzuko bulegoan (BAZ) jaso daiteke eskabidea, Arano eta Garcia Maisu-maistrak, 8 helbidean.

Quienes deseen tomar parte en el proceso selectivo, deberán hacerlo mediante la presentación de instancia (ajustada a modelo oficial y normalizado) que se adjunta a las presentes bases como anexo. También será facilitada en la página web municipal (www.arrasate.eus) y en la Oficina de Atención al Ciudadano (BAZ) sita en Arano eta Garcia Maisu-maistrak, 8.

Eskaerak, behar bezala beteta, Arrasateko Udaletxeko Erregistro Nagusian aurkeztuko dira,

Las solicitudes se presentarán debidamente cumplimentadas en el Registro General del

| | | | | |
|---|---|--------------|--------------------------|--|
| Kodea | CL19/06819 | Udala | ARRASATE | |
| Data | 2019/mai./27 | CUDO | 000.0055.AAAA942P.6.9UNJ | |
| URL | https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAA942P6.9UNJ | | | |
| Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu | | | | |



Esp. kodea: 2019PHLF0002
Titularra: PERTSONAL SAILA

Gaia: Pertsonal burua lanpostua jabetzan betetzeko lehiaketa
Hasiera data: 2019/03/26

deialdiaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik 15 laneguneko epean.

Ayuntamiento de Arrasate dentro del plazo de 15 días hábiles contados desde el siguiente al de la publicación del extracto de la convocatoria en el Boletín Oficial del Estado.

Eskabideak, halaber, aurkez daitezke urriaren 1eko, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak, 16.4 artikuluan ezarritako moduan; baita telematikoki ere aurkeztu ahal izango dira Arrasateko Udalaren erregistro elektronikoa.

Igualmente, las instancias podrán presentarse en la forma establecida en el art. 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, así como telemáticamente en el registro electrónico del Ayuntamiento de Arrasate.

Lehiaketa-oposizioan onartua izateko eskabideak Arrasateko Udalaren alkateari zuzenduko zaizkio, eta ondorengo baldintzak bete behar dituzte baztertuak ez izateko:

Las instancias se dirigirán al/a la Alcalde/sa del Ayuntamiento de Arrasate debiendo reunir los siguientes requisitos para no ser rechazadas:

- Hautagaiek 3. oinarrian eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela adieraziko dute. Hots, beti eskabideak aurkezteko azken egunean dituztenak, aurreko oinarrian jasotakoa kontutan hartuz.

- Se deberá hacer constar que reúnen todas y cada una de las condiciones exigidas en la base 3.ª, referidas siempre a la fecha de expiración del plazo de presentación de instancias, salvo lo dispuesto en la base anterior.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda onartze ko ardura duen organoak prozeduraren edozein momentutan jakiten badu hautagaien batek ez dituela betetzen deialdian parte hartzeko ezarritako eskakizunak, hautagaia hautaketa-prozesutik kanporatuko du entzunaldia eman ondoren.

No obstante, lo dispuesto en el apartado anterior, si en cualquier momento del procedimiento llegara a conocimiento del órgano competente para aprobar la relación de personas admitidas y excluidas que alguno/a los/as aspirantes carece de los requisitos exigidos para tomar parte en la convocatoria, le excluirá del proceso selectivo, previa audiencia al/a la interesado/a.

- Halaber, hautagaiek lehiaketa aldian baloratzekoak diren merezimenduei buruzko datuak adierazi beharko dituzte eskaeran.

- Asimismo, se harán constar los datos referentes a los méritos a valorar en la Fase de Concurso. No serán valorados los méritos no alegados en el momento de presentación de instancias.

Ez dira kontuan hartuko eskariarekin batera zehazten ez diren merezimenduak. Adierazitako merezimenduak Epaimahaiak hautagaiei eskatzen dien unean egiaztatu beharko dira (egiaztagiriak aurkeztu), honela:

La acreditación de los méritos alegados (entrega de justificantes), se realizará en el momento en que sea requerida a los/as opositores/as por el Tribunal Calificador, de la siguiente forma:

* Administrazio Publikoren bateko

* La experiencia en alguna Administración

| | | | | |
|--|---|--------------|--------------------------|--|
| Kodea | CL19/06819 | Udala | ARRASATE | |
| Data | 2019/mai./27 | CUDO | 000.0055.AAAA942P.6.9UNJ | |
| URL | https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAA942P6.9UNJ | | | |
| Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu | | | | |



Esp. kodea: 2019PHLF0002
Titularra: PERTSONAL SAILA

Gaia: Pertsonal burua lanpostua jabetzan betetzeko lehiaketa
Hasiera data: 2019/03/26

esperientzia, hark egintako ziurtagirien bidez egiaztatuko da. Honako hauek zehaztu beharko dira: enplegu harremana, betetako lanpostuaren izena, haren talde edo kategoria profesionala, enplegu harremanaren iraupena, dedikazio ehunekoa eta egindako zereginak. Arrasateko Udalean izan bada, nahikoa izango da eskabidean adieraztea, eta hautagaien espediente-pertsonaletan jasotako datuen arabera baloratuko da.

- * Enpresa pribatuan lan egindako esperientzia egiaztatzeko, enpresako ziurtagiria zeinetan honako hauek zehaztu beharko dira: enplegu harremana, betetako lanpostuaren izena, haren talde edo kategoria profesionala, enplegu harremanaren iraupena, dedikazio ehunekoa eta egindako zereginak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emaniko agiria (lan-bizitza) ekarri beharko dira. Enpresako ziurtagiriaren ordezkari lan-kontratuaren fotokopiak ere balioko du, edo Epaimahaiaren ustetan nahikoak izan litezkeen bestelako agiriak.

Aldiz, langile autonomoen kasuan, azken ziurtagiri hau Ogasunak jarduera ekonomikoari buruz emaniko ziurtagiri batekin ordezkaturiko da.

- * Titulu akademiko ofizialei buruzko merezimendua egiaztatzeko, lortutako tituluaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko da.
- * Prestakuntza-ikastaroak buruzko merezimendua egiaztatzeko, ikastaroa eman duen erakunde ofizialak igorritako ziurtagiri edo lortutako tituluaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko da. Bietan, datu hauek agertu beharko dira nahitaez: erakunde antolatzailearen izena,

Pública se acreditará con la presentación del certificado expedido por la misma, especificándose la relación de empleo, la denominación del puesto desempeñado, grupo o categoría profesional al que pertenece, duración de la relación de empleo, el porcentaje de dedicación y las labores realizadas. Si ha sido en el Ayuntamiento de Arrasate, bastará su alegación, valorándose en base a los datos que obren en los expedientes personales de los/as candidatos/as.

- * Para acreditar la experiencia en la empresa privada se deberá presentar junto con el justificante expedido por la Tesorería General de la Seguridad Social (vida laboral), el certificado de empresa especificándose la relación de empleo, la denominación del puesto desempeñado, grupo o categoría profesional al que pertenece, duración de la relación de empleo, el porcentaje de dedicación y las labores realizadas. Este último certificado podrá ser suplido por la fotocopia del contrato de trabajo o documentos que, a juicio del Tribunal, resulten suficientes.

En el caso de los trabajadores autónomos, este último certificado será sustituido por un certificado de Hacienda sobre las actividades económicas.

- * En la documentación que se presente para acreditar el mérito referente a los títulos académicos oficiales, deberá presentarse fotocopia compulsada del título obtenido.
- * En la documentación que se presente para acreditar el mérito referente a los cursos de formación, deberá presentarse certificación expedida por el organismo oficial que haya impartido el curso o mediante la fotocopia compulsada del título obtenido. En ambos deberán aparecer necesariamente el nombre de

| | | | | |
|---|---|--------------|--------------------------|--|
| Kodea | CL19/06819 | Udala | ARRASATE | |
| Data | 2019/mai./27 | CUDO | 000.0055.AAAA942P.6.9UNJ | |
| URL | https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAA942P6.9UNJ | | | |
| Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu | | | | |



Esp. kodea: 2019PHLF0002
Titularra: PERTSONAL SAILA

Gaia: Pertsonal burua lanpostua jabetzan betetzeko lehiaketa
Hasiera data: 2019/03/26

ikastaroaren izena, prestakuntza-programa eta iraun duen eskola-orduak.

la entidad organizadora, nombre del curso, el programa formativo y las horas lectivas de duración.

Gauza bera prestakuntza-ikastaroak eman izanaren kasuan.

Lo mismo para el caso de haber impartido cursos de formación.

- Desgaitasunen bat izan, eta denbora edo bitartekoen aldetik egokitzapenak behar baldin badituzte hautaketa-probak baldintza berdinetan egin ahal izateko, horiek espresuki eskatu beharko dituzte parte hartze ko eskaeran horretarako dagoen atalean, betiere, zehaztuz zer nolako egokitzapena behar duten. Horrezaz gain, eskatutako egokitzapena egiaztatuko duen mediku-ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

- Aquellas personas con discapacidad que precisen adaptaciones de tiempo, de medios o de ambos para la realización de las pruebas selectivas en igualdad de condiciones, deberán formular de forma expresa dicha petición en el apartado habilitado en la solicitud de participación, especificando el tipo de adaptación que solicitan. Además, deberán presentar un certificado médico acreditativo de la adaptación solicitada.

- Hautaketa-prozesuan parte hartzen duten hautagaiek automatikoki baimena ematen dute prozesuaren inguruko argitalpenetan, aldizkari ofizialekoetan eta Udalaren iragarki-oholean eta webguneetan identifikatze ko, izaera pertsonaleko datuak babestearen indarreko araudiaren ondorioetarako.

- La participación de las personas aspirantes en el proceso selectivo implicará automáticamente su autorización a que se les identifique en las publicaciones respectivas, tanto en el correspondiente boletín oficial como en el tablón de anuncios y en la página web municipal, a los efectos de la normativa vigente en materia de protección de datos de carácter personal.

- Eskerei agiri hauek erantsiko zaizkie:

- Las instancias deberán ir acompañadas de la siguiente documentación:

- * * NANaren fotokopia.
- * Deialdian parte hartzeko eskatutako titulazioaren fotokopia.
- * Euskara azterketa ez egitearren, zortzigarren oinarrian adierazitako agirieta baten fotokopia, hau da, lanposturako eskatzen den hizkuntza eskakizuna egiaztatuko duena.

- * Fotocopia del DNI.
- * Fotocopia del título exigido para tomar parte en la convocatoria.
- * Fotocopia de alguno de los documentos señalados en la base octava, que acredite el cumplimiento del perfil lingüístico de la plaza a la que se opta, a efectos de la exención del examen.

BOSGARRENA.HAUTAGAIK ONARTZEA

QUINTA. ADMISION DE ASPIRANTES

Onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko

La resolución por la que se apruebe la lista provisional

| | | | | |
|---|---|--------------|--------------------------|--|
| Kodea | CL19/06819 | Udala | ARRASATE | |
| Data | 2019/mai./27 | CUDO | 000.0055.AAAA942P.6.9UNJ | |
| URL | https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAA942P6.9UNJ | | | |
| Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu | | | | |



Esp. kodea: 2019PHLF0002
Titularra: PERTSONAL SAILA

Gaia: Pertsonal burua lanpostua jabetzan betetzeko lehiaketa
Hasiera data: 2019/03/26

zerrenda, Epaimahaiko partaideen izendapena eta oposaketako lehenengo ariketa zein egunetan egingo den iragartzeko, Alkateak ebazpena emango du eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Arrasateko Udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko da. Gero, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68. artikuluan dioenaren arabera, 10 lanegun izango dira erreklamazioak egiteko. Udalaren web orrialdean ere argitaratuko da (www.arrasate.eus).

Erreklamaziorik egingo ez balitz, behin-behineko zerrenda behin betikotzat joko da besterik gabe. Erreklamaziorik egingo balitz, horiek onartu edo baztertu egingo dira, behin betiko zerrenda onartzeko ari buruz hartuko den ebazpen berri baten bidez, eta era berean argitaratuko da.

Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango duzu Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean, behin onartu eta baztertutako zerrenda Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunetik kontatzen hasita bi hileko epean, eta bidezko den beste edozein helegite tarteratzea eragotzi gabe.

ZORTZIGARRENA.- EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA

Epaimahai Kalifikatzailea kide titularrek eta ordezkoez osatuko dute, eta horien izendapena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da eta Arrasateko Udaleko iragarki oholean. Hauek izango dira kideak:

Mahaiburua:

- Udaleko idazkaria, eta ordezkoa, udal teknikari bat edo beste Administrazio bateko teknikari bat.

Mahaikideak:

de personas admitidas y excluidas, se designe el Tribunal Calificador y se anuncie la fecha del primer ejercicio de la oposición, se hará pública en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Arrasate, concediéndose un plazo de 10 días hábiles para reclamaciones, a tenor del art. 68 de la Ley 39/2015, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. También será publicada en la página web municipal (www.arrasate.eus).

La lista provisional se entenderá automáticamente elevada a definitiva si no se produjeran reclamaciones. Si las hubiere, serán aceptadas o rechazadas en una nueva resolución por la que se apruebe la lista definitiva, que se hará pública, asimismo, en la forma indicada.

Contra dicha resolución podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo correspondiente, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación de la lista de personas admitidas y excluidas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, sin perjuicio de que pueda interponerse cualquier otro recurso que se estime procedente.

SEXTA.- TRIBUNAL CALIFICADOR

El Tribunal Calificador estará compuesto por titulares y suplentes, cuya designación será publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Arrasate, quedando constituido de la siguiente manera:

Presidente/a:

- La secretaria municipal y suplente un/a técnico/a municipal o de otra Administración.

Vocales:

| | | | | |
|---|---|--------------|--------------------------|--|
| Kodea | CL19/06819 | Udala | ARRASATE | |
| Data | 2019/mai./27 | CUDO | 000.0055.AAAA942P.6.9UNJ | |
| URL | https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA942P6.9UNJ | | | |
| Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu | | | | |



Esp. kodea: 2019PHLF0002
Titularra: PERTSONAL SAILA

Gaia: Pertsonal burua lanpostua jabetzan betetzeko lehiaketa
Hasiera data: 2019/03/26

- Hiru mahaikide: Udal teknikari bat/edo edo beste Administrazio batekoa, eta ordezkoa, udal teknikari bat edo beste administrazioko teknikari bat.
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatutako kide bat eta ordezkoa Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatuta.
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko teknikari bat, hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba egiteko, egoki bada.
- Tres vocales: técnico/a municipal o de otra Administración y suplente un/a técnico/a municipal o de otra Administración.
- Un/a miembro designado por Instituto Vasco de Administración Pública y suplente designado por Instituto Vasco de Administración Pública.
- Un/a técnico/a del Instituto Vasco de Administración Pública, a los solo efectos de realización de la prueba de acreditación de perfil lingüístico, en su caso.

Idazkaria:

Secretario/a:

- Udaleko karrerako funtzionario bat eta ordezkoa udaleko karrerako funtzionario bat.

- Una persona funcionaria de carrera municipal y suplente funcionaria de carrera municipal

Epaimahai kalifikatzaileko kideei aplikatuko zaizkie Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23 eta 24. artikuluetan jasotzen diren abstentzio- eta ezespenu-kausak.

A quienes integran el Tribunal Calificador les serán de aplicación las causas de abstención y recusación recogidas en los arts. 23 y 24 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Langileak hautatzeko organoek kolegiatua jardungo dute eta, osaketa, berriz, profesionaltasun- eta inpartzialtasun-printzipioei jarraiki egingo da. Era berean, emakume eta gizonen arteko parekotasuna gozotan hartuko da.

Los órganos de selección serán colegiados y su composición deberá ajustarse a los principios de imparcialidad y profesionalidad de sus miembros, y se tenderá, asimismo, a la paridad entre mujer y hombre.

Epaimahaia osatuko duten mahaikideen erdiak gutxienez eduki behar du lanpostu bakoitza eskuratze ko eskatzen den tituluaren ezagupen arlo bereko titulua, eta mahaikide guztiek ikasketa maila bereko edo handiagoko tituluaren jabe izan beharko dute.

Al menos la mitad de los/as Vocales integrantes del Tribunal Calificador deberán poseer una titulación correspondiente a la misma área de conocimientos que la exigida para el ingreso, y la totalidad de los/as mismos/as de igual o superior nivel académico.

Epaimahaiak komenigarritzat jo dezaken probetan gai ezberdinetan adituak diren aholkularien lankidetzara eska lezake.

En las pruebas en que lo considere conveniente, el Tribunal podrá recabar la colaboración de asesores expertos/as en las materias de que se trate.

Epaimahaikideak beraiek dira deialdiaren oinarriak betetzearen eta ezarritako epeetara lotzearen

Los miembros del Tribunal son personalmente responsables del estricto cumplimiento de las bases de la

| | | | | |
|---|---|--------------|--------------------------|--|
| Kodea | CL19/06819 | Udala | ARRASATE | |
| Data | 2019/mai./27 | CUDO | 000.0055.AAAA942P.6.9UNJ | |
| URL | https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAA942P6.9UNJ | | | |
| Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu | | | | |



Esp. kodea: 2019PHLF0002
Titularra: PERTSONAL SAILA

Gaia: Pertsonal burua lanpostua jabetzan betetzeko lehiaketa
Hasiera data: 2019/03/26

erantzuleak. Deialdi honen oinarrien aplikazioa interpretatzean sor daitezkeen zalantzak edo erreklamazioak epaimahaiak ebaztiko ditu; gehiengoaz, eta aurreikusita ez dauden kasuetan egin behar dena ere erabakiko du.

Epaimahaia ezingo da osatu eta ezingo du jardun baldin eta, gutxienez, lehendakaria eta idazkaria, edo horiek ordezkatzan dituzten pertsonak, eta kideen erdia gutxienez ez badaude. Zenbaketatik kanpo geratzen da idazkari diharduena. Epaimahaikide guztiek hitza eta botoa edukiko dituzte, idazkariak izan ezik; horrek hitza edukiko du, baina botorik ez. Epaimahaiaren erabakiak botoen gehiengoaz hartuko dira, eta, berdinketa egonez gero, presidente diharduenak ebaztiko du. Deialdi hau behar bezala garatze aldera, epaimahaiak oinarri hauetan aurreikusten ez diren gaien inguruan erabakiak hartzeko ahalmena izango du.

Epaimahaiaren jardunbidea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak agintzen duenari atxikiko zaio.

Epaimahaiaren ebazpenen aurka gora jotzeko errekurtsioa jarri ahal da alkate-udalburuaren aurrean. Hilabeteko epea izango da horretarako, iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatuta.

Jakinarazpenak: urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, xedatutakoaren ondorioetarako, hautaketa-prozeduratik eratorzen diren administrazio-egintzak udalaren web orrian argitaratuko dira. Horrek jakinarazpena ordeztuko du eta ondorio berak izango ditu.

ZAZPIGARRENA.-LEHIAKETA

Lehiaketa aldiak ez du bazterte-indarririk edukiko eta ezingo da kontuan hartu oposizio-aldiko probak gainditzeko. Aitzitik, oposizio- aldia gainditzen

convocatoria y de la sujeción a los plazos establecidos. Las dudas o reclamaciones que puedan originarse con la interpretación de la aplicación de las bases de la presente convocatoria, así como lo que deba hacerse en los casos no previstos, serán resueltas por el Tribunal, por mayoría.

El Tribunal no podrá constituirse ni actuar sin la asistencia, como mínimo, de quienes ocupen la Presidencia y la Secretaría, o personas que los sustituyan y de la mitad al menos de sus miembros. Del cómputo, se exceptúa a quien actúe como Secretario o Secretaria. Todas y todos los miembros del Tribunal tendrán voz y voto, menos quien ocupe la Secretaría, que tendrá voz pero no voto. Los acuerdos del Tribunal se adoptarán por mayoría de votos, resolviendo, en caso de empate, quien actúe como Presidente/a. El Tribunal queda facultado para resolver las dudas que se planteen y para tomar los acuerdos necesarios para el buen orden en el desarrollo de esta convocatoria, en todo lo no previsto en las presentes Bases.

El procedimiento de actuación del Tribunal se ajustará, en todo momento, a lo dispuesto en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Contra las resoluciones del Tribunal podrá interponerse recurso de alzada ante el/ la Alcalde/Alcaldesa-Presidente/a en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación en el tablón de anuncios.

Notificaciones: A los efectos de lo dispuesto en el artículo 45.1.b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo común de las Administraciones Públicas, los actos administrativos que deriven del procedimiento selectivo serán objeto de publicación en la página web municipal, sustituyendo a la notificación y surtiendo sus mismos efectos.

SÉPTIMA.- FASE DE CONCURSO

La fase de concurso no tendrá carácter eliminatorio ni podrá tenerse en cuenta para superar las pruebas de la fase de oposición, y se referirá a las y los aspirantes que

| | | | | |
|---|---|--------------|--------------------------|--|
| Kodea | CL19/06819 | Udala | ARRASATE | |
| Data | 2019/mai./27 | CUDO | 000.0055.AAAA942P.6.9UNJ | |
| URL | https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA942P6.9UNJ | | | |
| Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu | | | | |



Esp. kodea: 2019PHLF0002
Titularra: PERTSONAL SAILA

Gaia: Pertsonal burua lanpostua jabetzan betetzeko lehiaketa
Hasiera data: 2019/03/26

duten hautagaien izango da.

Epaimahaiak jarraian adierazten diren merezimenduak baloratuko ditu, baldin eta laugarren oinarrian dioen bezala, eskaeran adierazi eta behar bezala egiaztatu badira. Erreferentzia izango da beti eskaerak aurkezteko azken eguna.

1. Lanbide-esperientzia.

- Administrazio publikoen arloan emandako zerbitzuak, A1 edo talde horrekin parekatutako lanpostuetan, betiere giza baliabideak edo/eta langileak kudeatze ko ardura izan badute: gehienez, 14 puntu (0,15 puntu hilabete bakoitzeko).
- Enpresa pribatuan edota libre erdietsitako lan-esperientzia deituriko lanpostuaren antzeko eginkizun edo berdinak eginez, gehienez ere 8,00 puntu arte, hileko 0,9 puntu.

Lan-eskarmentua batzeko egindako lanaldiak batuko dira eta, behin hori egin ondoren, hilabete bat baino gutxiagoko frakzioak ez dira kontuan hartuko.

Lanbide-esperientziaren atal honetan, gehienez, 14 puntu lortu daitezke.

2. Titulu akademiko ofizialak.

Baloratuko dira deialdian parte hartzeko beharrezkoa denaz bestelako tituluak, bai eta masterrak, diplomak eta unibertsitateen berezko tituluak ere, betiere erabilgarriak badira deituko lanpostuan aritzeko. Gehienez ere puntu 4 emango dira.

- Lizentziadun/gradu titulu bakoitzeko: 4 puntu
- Doktore graduko: 2 puntu.

superen la fase de oposición.

El Tribunal valorará los siguientes méritos, siempre que hayan sido alegados y acreditados documentalmente, de acuerdo con lo establecido en la base cuarta, con referencia siempre a la fecha de expiración del plazo de presentación de instancias.

1. Experiencia profesional.

- Servicios prestados en el ámbito de las administraciones públicas en puestos del grupo A1 o asimilados, con competencias en gestión de recursos humanos y/o personal, hasta un máximo de 14 puntos, a razón de 0,15 puntos por mes.
- Servicios prestados en la empresa privada y/o en el ejercicio libre de la profesión, en un puesto de contenido igual o similar al de las funciones del puesto convocado, hasta un máximo de 8,00 puntos, a razón de 0,9 puntos por mes.

El cómputo de la experiencia se efectuará realizando la suma de los periodos trabajados y, una vez realizada la misma, despreciándose las fracciones inferiores a un mes.

La puntuación máxima que se puede obtener en el apartado de la experiencia profesional será de 14 puntos.

2. Títulos académicos oficiales

Se valorarán aquellos títulos distintos al exigido para tomar parte en la convocatoria, así como másteres, diplomas y títulos propios de las universidades, en relación a su grado de utilidad para desempeñar el puesto convocado, sobre un máximo de 4 puntos.

- Por cada título de licenciado/a/grado: 4 punto.
- Por el grado de Doctor: 2 punto.

| | | | | |
|---|---|--------------|--------------------------|--|
| Kodea | CL19/06819 | Udala | ARRASATE | |
| Data | 2019/mai./27 | CUDO | 000.0055.AAAA942P.6.9UNJ | |
| URL | https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA942P6.9UNJ | | | |
| Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu | | | | |



Esp. kodea: 2019PHLF0002
Titularra: PERTSONAL SAILA

Gaia: Pertsonal burua lanpostua jabetzan betetzeko lehiaketa
Hasiera data: 2019/03/26

- Graduondoak, 250 ordu arte: 0,50 puntu.
- Graduondoak, 250 ordu gora: 1 puntu.

Epaimahaiak baloratuko ditu adierazitako bestelako titulu ofizialak egokiak diren edo ez.

3. Prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak.

Prestakuntza edo hobekuntza ikastaroak eman edo gainditu izana, deituriko lanpostuaren eginkizunekin edo horretan jarduteko trebetasunekin loturiko gaietan zerikusi zuzena dutenak edo horiek eman izana, bai eta ponentziak ere, eta abar, gehienez ere 2 puntu irizpide hauen arabera:

- Ikastaroa 10 ordu arte: 0,10 puntu.
- 10 eta 30 ordu artean: 0,20 puntu.
- 31 eta 60 ordu artean: 0,30 puntu.
- 61 eta 100 ordu artean: 0,50 puntu.
- 100 ordu gora: 0,75 puntu.

ZORTZIGARRENA. OPOSAKETA ALDIA

Lehenengo ariketaren deia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, Arrasateko Udaletxeko iragarki oholean eta udaleko web orrian argitaratuko da. Bertan, azterketa egiteko eguna, ordua eta lekua adieraziko dira. Hurrengoak iragartzeko, Epaimahaia haien berri jakiteko era egokienaz baliatuko da.

Oposaketa aldiko ariketak egiteko ordena aldatu ahal izango da proba bakoitza egiteko deituriko hautagai-kopuruaren arabera eta IVAPEK hautaketa prozesuetan hizkuntza eskakizunen azterketak egiteko deialdi bateratuetarako ezarriko duen egutegiaren baitan.

Halaber, ariketa bat baino gehiago batera egitea erabaki daiteke. Kasu horretan, aurreko ariketa gainditu dituztenen ariketak bakarrik baloratuko

- Postgrados de hasta 250 horas: 0,50 puntos.
- Postgrados de más de 250 horas: 1 punto.

El tribunal calificador será el encargado de valorar la adecuación de los títulos alegados.

3. Cursos de formación y perfeccionamiento.

Por haber impartido o superado cursos de formación y perfeccionamiento en materias directamente relacionadas con las funciones propias del puesto de trabajo convocado o con destrezas requeridas para su desempeño o haber impartido los mismos, así como ponencias, etc., hasta un máximo de 2 puntos, con arreglo a los siguientes criterios:

- Curso de hasta 10 horas de duración: 0,10 puntos.
- Entre 10 y 30 horas de duración: 0,20 puntos.
- Entre 31 y 60 horas de duración: 0,30 puntos.
- Entre 61 y 100 horas de duración: 0,50 puntos.
- Más de 100 horas de duración: 0,75 puntos.

OCTAVA.-FASE DE OPOSICIÓN

La convocatoria del primer ejercicio a realizar se publicará en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Arrasate y en la página web municipal, indicando fecha, hora y lugar de celebración del examen. Los posteriores serán anunciados por el Tribunal en la forma que juzgue conveniente para facilitar su conocimiento.

Se podrá modificar el orden de realización de los ejercicios de la fase de oposición con motivo del número de aspirantes convocados a cada ejercicio y del calendario que establezca el IVAP de convocatorias unificadas para la realización de exámenes de perfiles lingüísticos en los procesos selectivos.

También se podrá disponer la celebración de varios ejercicios el mismo día. En este caso, únicamente se valorarán los ejercicios realizados por quienes hayan

| | | | | |
|---|---|--------------|--------------------------|--|
| Kodea | CL19/06819 | Udala | ARRASATE | |
| Data | 2019/mai./27 | CUDO | 000.0055.AAAA942P.6.9UNJ | |
| URL | https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAA942P6.9UNJ | | | |
| Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu | | | | |



Esp. kodea: 2019PHLF0002
Titularra: PERTSONAL SAILA

Gaia: Pertsonal burua lanpostua jabetzan betetzeko lehiaketa
Hasiera data: 2019/03/26

dira.

Epaimahaiak egindako deialdira bertaratzen ez diren hautagaiak, adierazitako egun, leku eta orduan alegia, hautaketa prozesutik kanpo geratuko dira, nahiz eta bertaratze a guztiz ezinezkoa izan zaielako izan.

Nortasuna egiaztatze ko agiriren bat eraman beharko da probetara, eta epaimahaiak edozein momentutan eskatu ahal izango du dokumentazio hori erakusteko.

Oposizioak honako ariketak izango ditu:

- Lehenengo ariketa. Ezagupen teorikoko proba, derrigorrezkoa eta kanporatzailea. Bi atal izango ditu:

A atala) Idatziz oinarri hauen I eranskineko gaiei buruz prestatutako aukerako galderak erantzun beharko dira. Epaimahaiak erabakiko du, proba hasi aurretik, gaizki erantzuten diren galderek penalizatuko diren ala ez.

